Eta lehenengo nobedadea Sukalki Egurenaren eskutik etorriko jaku. Gaur egun arte ekitaldia jai-egitarauaren barruan egin da, baina aurton handik kanpo atera eta maiatzaren 8an izango da. Ekitaldi honek beraz, era batean edo bestean, hasiera emongo deute jaiak. Jesus Lagunas kultura zinegotziak azaldu dauen bezala, Sukalki Eguna derioztar guztien eguna bihurtzeko asmoa dau Udalak. Alkarte guztiei gutun bana aginduko jake ekitaldian parte hartzera animeteko, eta herritarrei be animauko jake egun horretan alkondara zuria eta Derio-ko zapia janztera. "Bertan ahalik eta lagun gehienek parte hartzea gurako geunke. Ganera, txapelketaren ostean, herri-bazkaria egingo da frontoian". Sukalki Eguna frontoia-oren ondoko parkingean egingo da eta han umeentzako tailerrak be antolatuko dira, "gastronomia gaztetxoei hurbiltzeko". Maiatzaren 8a mobimentu handiko eguna izango da Derion. Aitatutako ekintzaz aparte, Uribe Kostako Areto-futbolaren Txapelketaren finalak hango kiroldegian egingo diralako.

Untza mendi taldeak pregoia irakurriko dau aurtengo jaietan eta hori maiatzaren 14an, arratsaldeko 8:30ean izango da. "Orain dala urte bi dinamika honetan sartu ginan: pregoia herriko alkarteek irakur daien. Dinamika horri jarraitu eta aurton Untzari jagokon egin beharra. Hogeta hamar urte bete ditu eta ibilpide luze honetan egindako beharra aintzatetsi



Derioztarrak prest dago

San Isidro-ko aurre egin deuto krisialdiari eta derioztar guztiei zuzendutako ekitaldi sorta zabala eskiniko deusku maiatzaren 14tik 17ra bitartean. Ohiko formulek emaitza ezin hobea badabe be, nobedadeak be egongo dira.





z jaietarako

*"Pregoia Untza mendi
taldeak emongo dau,
alkartearen 30.
urteurrenaren haritik"*

*"Azokan Errekalde
txakolina aurkeztuko da,
Derioko Udalak berak
ekoizten dauana"*

Jai-egitaraua

Maiatzaren 8a, zapatua. Sukalki Eguna

Sukalkia, frontoi ondoko parkingean. Ipar-Alde abesbatzaren eskutik. Umeentzako tailerrak.

Animazinoa, Bertoko taldeagaz.

10:00: Uribe Kostako Areto-futbolaren Txapelketaren finalak, kiroldegian. Artega taldearen eskutik.

12:00: CemenDerioRock ekitaldia, Santzoka alkarteak antolatua.

12:30: X. Argazki Rallyaren sari-banaketak, Gurea Aretoan. DAT-ek antolatua.

16:00-19:00: Taberna Ibiltaria.

Maiatzaren 14a, barikua

19:30: Konpartsen jatsierea. Txapelketea eta animazinoa, Leioako musika bandeagaz.

20:30: Pregoia, Untza mendi taldearen eskutik. Txupinazoa eta txitxi-burruntzia, Odol argia eta Subyke alkartearen eskutik.

22:30: Kontzertuak, txosna-gunean: Lor, Betagarri eta Triki. Tximintx euskera alkartearen eskutik. Ostean, diskotekea.

Maiatzaren 15a, zapatua. San Isidro

11:30: Mezea.

11:30-14:00: Umeentzako tailerrak.

Animazinoa, Bertoko taldeagaz.

13:30: Ipuin-kontalaria.

18:00: Dantzen agerraldia, Lainomendi dantza taldearen eskutik.

19:00: Idi probak.

19:00: Umeei zuzendutako herri kirolak eta jolasak, Probaleku ondoan. Kulki taldearen eskutik.

23:00: Berbenea, txosna-gunean: Luhartz. Ostean, diskotekea.

Maiatzaren 16a, domekea. Azokaren Eguna

10:30-14:30: Elikagai eta eskulan taile-

ren azokea: txakolin eta txahalaren dastatzea, umeentzako tailerrak, zantzarraz eta II. Pintura Lehiaketak.

11:00: "Dalmazio Langarika" VIII. Memoriala, Seminarioan. Euskadi Txirrindularitza Irakaskundeak antolatua.

17:00: Derioko I. Koparen finala (eskuz banakakoa; lau t'erdiko modalitatea), frontoian.

18:00: Briska Txapelketea eta Pintura Lehiaketearen sari-banaketak.

Dantzaldia, Cocktail orkesteagaz.

19:00: Dantza latindarren Txapelketa, Nagusien Etxeak antolatua.

Maiatzaren 17a, astelehena. Umeen Eguna

11:30-14:00: Puzgarriak eta ludotekea.

12:00-14:00: Gazteentzako ekintzak, San Migel plazan: simulagailuak, skate parkea, sumoa eta trikimakoak.


12:30: Marrazki Lehiaketak, Odol argia alkarteak antolatua.

16:30-19:30: Umeentzako jolas-parkea.

18:00: Marrazki Lehiaketearen eta konpartsen sari-banaketak.

19:00: Kale-antzerkia: *Charabia*, El negro y el flaco antzerki taldeagaz.

Jaien amaiera eta txokolatadea.



Carretería
Charretería
TRAY

carretería y charretería
en toda la zona.

GRUPO
de empresas
carreteras

carretería y charretería
en toda la zona.

GRUPO
de empresas
carreteras

agrojardín
Artikene

Elaboración de productos
carreteros y charreteros en toda la zona.


gura dogu". Zinegotziak aitatu deuskun bezala, sorpresaren bat be egon liteke pregoiaren irakurketan.

Maiatzaren 15a Zaindariaren Eguna ospatuko dabe derioztarrek eta egun osoan zehar dibertimentua nagusi izango da herriko kaleetan: tailerrak, dantzak, idi probak, jokoak, hip-hoparen kontzertuak...

Udal txakolinaren aurkezpena

Hurrengo egunean Elikagai eta Eskulan Tailerren Azokak hartuko dau txandea, San Isidroko jai-egitarauko ekintzarik erakargarrienetarik bat dana. Azokea XV. aldiz egingo da aurton eta, besteak beste, honeek antolatu dabez horren barruan: Iparraldeko jokoak, txahalaren dastatzea, Pintura Lehiaketa eta tailerrak. Horrezaz ganera, Errekalde txakolina aurkeztuko da jente-aurrean. Hori Derioko Udalak berak ekoizten dauan txakolina da eta lehenengo ekoizpena aurton aterada.

Beste alde batetik, arratsaldean, Derioko I. Koparen finalak jokatu dira frontoian. Aurreko urteetan pelotari profesionalen partidak izan dira, baina aurton pelotari afizionauetara bultzada emon gura deutse Udalak. "Txapelketan Euskal Herri osoko pelotariak hartuko dabe par-




te, laster maila profesionalera saltua emongo dabenak. Txapelketa apirilaren 30ean hasi eta maiatzaren 16an jokatu dira finalaurrekoak eta finalak".

Maiatzaren 17a umeei zuzendutako eguna izango da. Goizean zein arratsaldean era askotako ekintzak antolatu dira herriko gaztetxoek gozamenetarako: puzgarriak eta jolas-parkea, simulagailuak eta skate-parkea, Marrazki Lehiaketa eta kale-antzerkia, banaka batzuk aitatzea-

"Derioko I. Kopa egingo da lehenengo aldiz eta bertan Euskal Herri osoko pelotariak hartuko dabe parte, afizionatu mailan"

rren. Egun horretan be amaiera emongo jake jaiei, asteburuan zehar izandako ekitaldiek ahoan sabore ederra itxi deuskue-la eta datorren urteko jaiak laster etorriko diralakoa.

Derioko alkarteek ezinbesteko papera euki dabe herriko jaiak antolatzeko orduan. Beste edizinoetan erakutsi daben moduan, gogor egin dabe aurton be bai, proposamenak egiten eta ekitaldiak antolatzen. "Euren laguntzea ordaindu ezina da. Oso alkarte aktiboak doguz Derion eta beti dagoz prest hau edo bestea antolatzeko. Ekitaldiok jai-egitarauaren barruan ez ezik handik kanpo be izango doguz. Holan, maiatzean eta ekainean be hainbat ekintza eukiko dogu herrian: jantzien erakusketa, slaloma, ibiltaldi neurtua eta Tiragoma Txapelketa, esate baterako".



Lainomendi dantza taldea kidro Deuna jaietan Jaietan ondo pasa!

JAI SILKA
Kidro Deuna elizatik
inguruetan 14an
19.30etan

AGERRALDIA
Derioko plazan,
inguruetan 16an
18.00etan






Derio
Derioko Urtara



Abendu 10: KOTOLAKO JAIETAN

Gratu jaiak ematen



t: Gaizka Eguskiza / a: G.E. eta Trikuharri

Hamasei-hamazazpi urte zituztela, Fran Calvente eta Felipe Duran derioztarrak Derioko tailer-eskolara joan ziren harriak lantzen ikastera. Iñigo Bilbao loiuztarrak ezagutu zuten bertan, eta, eskolan hiru urte egin eta gero, Trikuharri enpresa eratu zuten. "Gazte-gazte joan ginen hara, eta garai hartan aitzurra zelan erabili ere ez genekien. Eskolan ogibidearen oinarriak ikasi genituen, baina benetako lana ekinaren ekinez ikasi dugu geroago. Enpresa sortu genuenean, harriak behar genituen lan egiteko, eta harrobian lortzen genituen. Horrela, Durangoko hargin batzuekin jarri ginen harremanetan. Harginok semetzat hartu gintuzten eta ogibide hau benetan nolako den irakatsi ziguten, hau da, harriak zelan landu, nondik moztu...", aipatu digu Felipek.

Hargin hauek antzinako eran egiten dute lan, hau da, eskuz egiten dute dena. Ez dute tresneria handirik erabiltzen, rotaflex zerra izan ezik. "Baina zerra horrek zazpi zentimetroko zulotxo baina ez du egiten. Gainerako lan guztia eskuz egiten dugu". Horretarako, gaur egun egiten ez diren tresnez baliatzen dira: falkak, aizkora bereziak, matxeteak, harri-zulatzaleek erabiltzen dituzten antzinako barrak... Harginak izan arren, errementari lanak ere egin behar izaten dituzte, tresneria prestatzeko. Falkak, esate baterako, Land Rover kotxeetako baleztetatik ateratzen dira. Harri handiak mugitzeko ere ez dute erabiltzen ez garabirik ez hondeagailurik.

Harginen lana hiru zatitan banatzen da: harria harrobitik ateratzea, harria lantzea eta harria jartzea. Trikuharriko lagunek bigarren atala lantzen dute, batez ere. "Trebeagoak gara hori egiten. Lan horrek espezializazio handiagoa eskatzen du, zailagoa da egiten, nolabait esatearren. Hori dela-eta, diru gehiago ateratzen dugu harriak lantzen harriak koka-

Harrien artisauak



Hainbat txalet eta baserri daude Txorierrin barreiatuta. Batzuk harriz eginda daude, eta haietako batzuk Trikuharri enpresako harginek egingo zituzten, ziur asko. Txorierriko hiru mutil horiek lana eskuz egiten duten harginak dira. Harrien benetako artisauak dira.




tzen baino. Guztira, lau hilabete ematen dute etxe bakoitza altxatzeko, eta, batez beste, 50.000 euro kobratzen dute bere lanaren truke. "Harriak eskuz lantzeak lantegi batean lantzeak beste diru balio du, baina lanak ez du zerikusirik. Makina bat ez da gauza guk egiten duguna egiteko. Guk beste ukitu bat ematen diogu lanari. Bezero batzuek ez dute hori aintzat hartzen, baina beste batzuek bai, eta haiek deitzen digute euren etxeak egiteko. Beste alde batetik, lantegietan erabiltzen diren tresnak erosteko dirutza beharko genuke eta, egia esateko, ez diqu merezi".

Edozein gauza egiteko gai dira Trikuharriko harginak: normalean txaletak edo baserriak egiten dituzte, baina azken bolada honetan etxe batzuk ere berritu dituzte. Batzuetan, enkargu xelebrei egin behar izan diete aurre. "Batek harrizko bainuontzia egiteko eskatu zigun", "Arkitektoek etxearen diseinua egiten dute eta hori ukaezina da. Hala ere, gomendio batzuk ematen dizkiegu bezeroei: adibidez, tximinia zelan egin; edo egin dugun azken etxean esku bat zizelkatu dugu harriaren gainean, apaingarri moduan. Normalean, apalategiak harriz eraikitzen ditugu, eremuak atontzen ditugu..."

Ahoz aho

Eta arrakastatsua da bere jarduera, antza. Izan ere, nahiz eta publizitaterik ez egin, lana ez zaie falta. “Bezeroak poz-
pozik daude gurekin, eta ahoz aho zabal-
tzen dute gure lana. Bezero berriei gure
aurreko lanen argazkiak erakusten dizkie-



*Hargin horiek antzinako
eran egiten dute lan,
hau da, eskuz egiten
dute dena, eta
ez dute tresneria
handirik erabiltzen*

gu. Eurek gustatu zaiena aukeratu, eta zuzenean ikustera goaz. Aurreko bezeroek besoak zabalik hartzen gaituzte eta problema barik uzten digute euren etxea ikusten”.

Hargina izatea oso lan gogorra da, eta batzuetan ez da erabat osasogarria. Esaterako, Iñigo arnas gaixotasun bat du, sili-kosia. Bizkarrean ere arazoak izaten ditu. Izan ere, fisikoki oso lan gogorra da. Horregatik, harginek neguan udan baino arinago egiten dute lan. "Udan egunak luzeagoak izan arren, beroa datorrenean ezin dugu jarraian lan egin, ito egiten gara. Neguan, berriz, gustura egiten duzu lan, eta etengabe egon ahal zara harriari kolpeak ematen". Gogortasuna alde bate-ra utzita, harginak artisauak dira eta euren lana polita eta ikusgarria da. "Etxea egiten dugunean, igeltseroekin batera egiten dugu lan, eta askotan, harriak lantzen ditugun bitartean, besteek utzi egi-ten diote lanari, eta geuri begira geldit-zen dira"

**MOMI
INFANTILE
Trimeleta**

Esclusiva Distribuzione
S.p.A. - Via S. Eusebio 10 - 00187 Roma
Tel. 06/47811111 - Fax 06/47811112

00187 Roma
Tel. 06/47811111 - Fax 06/47811112



Il primo secondo
fondamentale sempre,
nessa volta



James GORD
ZANUZI
Niente indizi

www.zanuzi.it

www.milady.ro

**FINALA
DERIO
EURO ARTOR
MAIATZAK 22
18:00etan**

**ENTRADA
LIBRE**

bbk =

**ENTRADA
LIBRE**

D **Dono** **afiliat**

"Egunkaria auzia ez dago oraindik itxita"

XABIER OLEAGA | Egunkaria auzian epaituetakoa

Zazpi urte pasa dira Auzitegi Nazionalak Euskaldunon Egunkaria itxi zuenetik. Urte gogorak izan dira Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleagarentzat, baina azkenean epaileak absolbitu egin ditu. Hala ere, auzia irekita dago oraindik, akusazioak helegitea jartzeko aukera duelako, eta auzi ekonomikoa ere epaitzeko dagoelako.

t: Gaizka Eguskiza / a: Gari Berasaluze


Zorionak. Ustekabeen harrapatu zaituzte epaia?

Eskerrik asko. Ez, ez gaitu ustekabeen harrapatu. Hala ere, Auzitegi Nazionalaz ari gara hitz egiten, eta bertan jarrera prebentiboa izaten dute geroago etorri litekeenari buruz. Epaiketa zelan izan den kontuan hartuta, epai logikoa atera da.

Amaitu da epaiketa edo espero duzue akusazioaren helegitea?

Oraindik ez dakigu. Aikor! aldizkariaren hurrengo alea ateratzen denerako jakingo dugu, ziur asko. Guk pentsatzen

genuen epaia kaleratu bezain pronto jarriko zutela helegitea, baina oraindik ez dute egin. Dena dela, uste dugu helegitea jarriko dutela. Gure abokatuek eta kontsultatu ditugun jurista guztiek esan digute epaia oso ondo argudiatuta dagoela. Ondorioz, helegiteak aurrera ateratzeko aukera gutxi edo bat bera ere ez lukeela izango Auzitegi Gorenaren aurrean. Horrela izango balitz, bigarren porrot handia izango luke akusazioak, eta horrek baldintzatuko du bere erabakia. Gorenera auzia ailegatzen bada, beste gauza bi hartu behar dira kontuan: alde batetik, epaiketa galtzen duenak ordainduko ditu



epaiketaren gastuak; eta bestetik, auziak jurisprudentzia ezarriko du. Azken hori akusazioaren interesen kontra joan daiteke. Jarri ala ez jarri, Egunkaria auzia ez dago oraindik itxita. Izan ere, auzi ekonomikoa ez da oraindik epaitu.

Epaiaik hainbat gauza aipatzen ditu. Zeintzuk dira azpimagarrienak, zure ustez?

Nik hiru nabarmenduko nituzke bereziki: batetik, egunkari bat ixtea antikonstituzionala da; bestetik, epaiak egurra ematen die bai instrukzio-epaileari, bai Guardia Zibilari, bere jokabidea zuzena izan ez delako. Epaiaik dio atxilotetak egin dituztenak, hau da, guardia zibilak, peritu ere aritu direla. Eta azkenik, torturaren inguruan egiten den adierazpena azpimarratuko nuke. Epaiairen arabera, epaileari ez dagokio torturak egon diren ala ez epaitzea. Hala ere, sinesgarritasuna ematen dio nire testigantzari. Baina hori baino garrantzitsuagoa hau da: epaiak dio inkomunikatuta ibili ginen bost egun horietan epaileak ez zuela benetako kontrolik egin.

Zelan egin du aurrera epaiketak Egunkaria itxi izana antikonstituzionala bada?

Galdera horrek gauza interesgarri bat jartzen du mahai gainean. Esan da epaian argudio on eta berriak daudela. Baina hori ez da egia. Hala ere, gauza berria da epaile batek horrelako argudioak aintzat hartu eta ontzat ematea. Gure abokatuetako bat Iñigo Iruin izan da eta bera ere izan zen *Egin* egunkariko auziaz arduratu zenetako bat. Auzi hartan hainbat helegi-

“Euskal gizarteak eman duen erantzuna eman ez bazen, ez zen plazaratuko gure aldeko epaia”

te jarri zituen Iruinek, *Egin* itxi izana antikonstituzionala zela argudiatuz. Baina horiek ez ziren inoiz kontuan hartu. Egunkari bat ixtea antikonstituzionala da, Konstituzioaren 20. artikuluaaren kontra, eta Zigor Kodearen 129. artikuluaaren kontra doalako. Horrek agerian uzten du Auzitegi Nazionala den “oilategi” zabal horretan mota ezberdinetakako “oilarrak” daudela, eta bakoitzak komeni zaionari eusten diola, hau da, koherentzia falta nabarmena dago bertan; kasu honetan, zorionez. Izan ere, gure auzian gertatu dena ez da ohikoa, baina hori Auzitegi Nazionallean konpondu beharko luketen arazoa da.

Eskatuko diozue Estatuari erantzukizunen bat?


Gizarte mailan horren inguruko eztabaida sortu da, logikoa denez: kalte handia egin dute zazpi urtean, injustizia handia gertatu da eta norbaitek ordaindu behar izango du. Ezin da zigorgabetasun hori gertatu. Gizarteak horrela pentsatzen du Egunkaria auzia itxita dagoela uste duelako, baina hori ez da egia. Bi gauza

daude erabakitzeke: alde batetik, akusazioak helegitea aurkezten duen ala ez, eta, egitekotan, zelan aurkezten duen; eta bestetik, auzi ekonomikoa. Horiek argitu arte, ez da izango momentua erantzukizunei buruz hitz egiten hasteko. Eta gero gerokoak. Eta gero gerokoak heltzen direnean ere, alde batetik, gizarte mailako eztabaida dago; eta bestetik, estrategia juridikoa. Eta askotan biak ez doaz elkarrekin. Beraz, helegite eta auzi ekonomikoaren emaitzak ikusita, erabakiko dugu zer egin. Badugu erantzukizunak eskatzeko aukera morala eta politikoa, baina ez dakigu aukera juridikorik ere izango dugun. Arazo konplexua da bere garaian erabakiko dugu zer egin.

Zergatik izan da hain garrantzitsua euskal gizartearen babesa edo atxikimendua?

Oso garrantzitsua izan da, erabakigarria. Ni ziur naiz Egunkari auzian euskal gizarteak eman duen erantzuna ez bazen, ez zen plazaratuko gure aldeko epaia. Euskal gizartearen jarrera kritikoa eta aktiboa azaldu izanak -azaldu den bezala, modu anitz, zabal eta indartsuan- ahalbiderratu du gure mugetatik kanpo ere beste erreakzio mota batzuk egotea, bai Estatu mailan, bai nazioarte mailan oro har. Agian horrek guzti horrek epaimahaiari ulertarazi dio Egunkari auziak bazuela izaera bat, akusazio-oinarri berberak beste batzuek ez zeuzkatena. Horregatik, etorkizunean etorri ahal diren auziei bidea ezartzen die Egunkaria auziak.





Zure osasuna, esku onetan

DERIO FISIOTERAPIA-ZENTROA

*Edozein patologiar
ematen diote tratamendua
eta horretarako,
teknikarik aurreratuenak
erabiltzen dituzte*

Bizkaifisios SL zortzi fisioterapeutak osatutako lantaldea da. Guztiek arlo honetan aritzeko beharrezkoa den titulu ofiziala dute eta kolegiatuta daude. Javier Diez Arrola taldearen buru da. Diezek Basurtuko Ospitalean hasi zuen bere ibilbidea, eta gaur egun 34 urteko esperientzia du, arlo publikoan zein pribatuan.

Fisioterapia eta errehabilitazioko zentroak egoitza bi ditu: bata, Galdakaon; eta bestea, Igorren. Laster egoitza berria zabalduko dute Derion; Inbisa enpresazentroan, hain zuzen ere. "Hura maiatzeko egongo da martxan. Gure bezeroen artean, txorierritarrak ere badaude: batez ere Lezamakoak eta Larrabetzukoak. Horiek Galdakaoraino hurbildu behar dira eta zentro berriari esker, zerbitzua etxetik hurbil emango diegu. Baita txorierritar guztiei ere".

Derio Fisioterapia-Zentroko lantaldeak edozein patologiar ematen dio tratamendua:

-Lokomozio-aparatua: hausturak, aldaka-protesiak, belaun-protesiak...

-Lesio neurologikoak: hemiplegiak, paraplegiak, Parkinson, ibiltzen berriz ikastea...

-Kirol-lesioak: tendinitisa, lotailuetako lesioak, zaintiratuak...

-Arnas aparatua: Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa (BGBK), pneumonia...

-Ginekologia eta gernu-aparatua:

gernu- eta eginkari-inkontinentzia, erditzeko prestakuntza...

-Aparatu kardiobaskularra: edemak, linfoedemak...

-Otorrinolaringologia: bertigoak, zorabioak...

-Erreutomalogia: artrosia, artritis, espondilitisa...

-Estresa

Gaitza horiek guztiak tratatzeko, teknikarik aurreratuenak erabiltzen dituzte. Tekniken artean, hauek aipa ditzakegu: zinesiterapia, masoterapia, osteopatia, eskuzko drainatze linfatikoa, elektroterapia, termoterapia, krioterapia, ultrasoinuak, arnasketa-ariketak, mekanoterapia

teknikak, biofeedback eta hesgailu funtzionalak. Teknikak tratamendu bakoitzera egokitzen dituzte, hau da, patologiarekin araberako tratamendua ematen dute.

Formazio jarraitua taldearen helburu nagusietariko bat da, bezeroei ahalik eta arreta onena eskaini ahal izateko. Horren haritik, tratu xumea eta zerbitzuaren kalitatea Derio Fisioterapia-Zentroko taldeko profesionalak bereizten dituzten ezaugarrietarikoak direla esan dezakegu. Izan ere, zuzeneko harremana dute pazientearen medikuarekin, eta horri patologiarekin bilakaeraren berri ematen diote. Era berean, aldian-aldian bilerak egiten dituzte, bakoitzak dituen kasuak ezagutu eta sor daitezkeen erronkei guztien artean heldu ahal izateko. "Pazienteari tratamendua eman baino lehen, galdera hau egiten diot nire buruari: nik patologia hori izango banu, zein tratamendu emango nioke nire buruari? Pazientearentzat onena dena aukeratzeko dugu beti".

Bizkaifisios Fisioterapia eta errehabilitazioko zentroetan seguru guztiak onartzen dituzte: IMQ, Sanitas, Lagun Aro, Axa, Allianz, Mapfre... Era berean, partikularrek ere kontsultara hurbiltzeko aukera dute.





DERIO FISIOTERAPIA-ZENTROA

- Tratamendu guztiak:
 - Lokomozio-aparatua
 - Lesio neurologikoak
 - Kirol-lesioak
 - Ginekologia eta gornu-aparatua

Orduak:
9:00-21:00

- 30 urteko esperientzia
- Iratu xumea



Astineren eraikina, 5. 6
Indra Indusmagina
48160 Derio
T: 949 44 58 41

t: Gaizka Eguskiza / a: UFE

Futbola jentetzea batzen dauan kirola da. Telebista kateek dirutzea gastetan dabe partiduak emon ahal izateko, eta kalean, lanean edo tabernetan askotan egiten dogu berba futbolari buruz. Iraultza Goikoetxea eta David Jorinentzat be oso garrantzitsua da futbola. Izan be, jokariak izateaz ganera, goi mailako entrenatzaile txartela be badabe eta heziketa fisikoko irakasleak be badira. Bion artean antolatu dabe futbol eskolea Larrabetzun, Uritarrak taldearen babespean. Aurton hasi dira eta poz-pozik dagoz.

Euren planteamentua erabat ezberdina da. "Guk badakigu futbola ez dana jolasa, jokoa baizen, hau da, bata irabazten dau, eta besteak, galdu. Lehia dago, eta gizarteak batez be emoitzea hartzen

"Oso giro ederra topatu dogu Larrabetzun gure proiektu hezitzailea martxan jartzeko"

dau kontuan. Gure ustez, barriz, emoitzea baino, heziketa prozesua bera eta honeri lotutako hainbat balio dira inportanteagoak: errespetua, esate baterako. Jokariak baino gehiago, personak hezten doguz eskolan", esan deusku Iraultzak. Athleticen ikasitako metodologiari jarraituz, baloia oso garrantzitsua da entrenamentuetan, eta haren bitartez teknikea, taktikea eta koordinazioa lantzen ditue umeek. Horretarako, zirkuituak, ariketak eta jolasak erabiltzen ditue entrenatzaileek.

Larrabetzura eroan baino lehen, beste leku batzutan aurkeztu eban proiektua gazte pare honek. "Leioan, Mungian eta Zornotzan emon genduan eskolearen

Personen eskolea

Uritarrak taldeko futbol eskolea

Gurasoek pianoa, ingelesa edo karatea ikastera bialtzen ditue umeak. Orain futbola ikasteko erea be badago Larrabetzun, Uritarrak taldearen eskutik. Bertan futbol eskolea edegi dabe eta antolatzaileek nondik-norakoak azaldu deuskuez.



Jaialdi solidarioa


Ikasturtearen bukaera ospatzeko, jaialdia antolatu dabe ekainaren 11n, 12an, eta 13an, Larrabetzun. Guztira, 12 taldek hartuko dabe parte han: Athletic, Santanderreko Racing, Madrileko Atletico, Xixongo Sporting, Zaragoza, Eibar eta talde nafar bat. Bizkaitik be etorriko dira beste batzuk Larrabetzura. Eskolea ezagutzera emoteaz ganera, Aspanovas Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen alkarteari laguntzea emotea dau helburu jaialdiak. Izan be, "sentiberatasun berezia sortu da Larrabetzun haurminbiziaren inguruan herriko ume batzuek gaixotasuna pairatu dabelako". Alkarte honeri jaialdian batzen dan dirua emongo deusie eskolakoek.



barri, eta azkenean Zornotzan onartu eben. Bertan jarri genduan martxan eskolea, baina zornotzarrentzat oso garrantzitsua da lehia. Guk, aldiz, umeentzako egitasmoa egin gura genduan eta desadostasunak sortu ziran geure artean. Zornotza itxi, eta Daviden koinatuak, Larrabetzukoak danak, eskolea bere herrira ekarteko esan euskun. Eta holan hasi ginan Larrabetzun. Larrabetzu herri txikia da eta gurasoak dira taldeko batzarkideak. Horrek esan gura dau aitek eta amek izugarrizko inplikazinoa dabela eta beti prest agertzen dirala umeen alde lan egiteko. Beraz, oso giro ederra topau dogu gure proiektu hezitzailea martxan jarteko.

Eskolaren egiturea

David eta Iraultzagaz batera, beste bost entrenatzaile dagoz eskolan. Guztion artean 6 urtetik 12ra bitarteko 50 neska-mutil entrenaten ditue astean birritan. "Eskola arrunta bezala antolatzen dogu gure futbol eskolea: argi dago 6 urteko mutilak ez dakiala 12 urteko batekin beste, eta norberaren beharizanen arabera antolatzen doguz entrenamentuak".



Normalean bi moltsotan banatzen ditue haurrak: batetik, txikiak, 6 urtetik 9ra bitartekoak; eta bestetik, nagusiak, 9tik 12ra bitartekoak. Ume gehienak Larrabetzukoak dira, baina Galdakao, Morga, Lezama eta inguruko herrietatik be etorten dira. Asteburuetan Uritarrak izenpean jotzen dabe.

Gazte bikote honen eta klubaren arteko harremanak onurak ekarten deusez guztiei: alde batetik, Davidek eta Iraultzak

euren proiektua martxan jarteko errea dabe; eta bestetik, Larrabetzuko klubak behe mailako taldeak osatu ahal ditu. "Ganera, herriko umeek futboleko aritzeko errea daukie, Larrabetzutik urten barik. Txorierriin behe mailako futbol talde gitxi dagoz, eta eskoleari esker, Larrabetzu erreferentzia izatea gura dogu Txorierriin arlo honetan".

www.futboleskola.blogspot.com



CONTEMPORARY CULTURE STRA
LAPORU KULTURA, 1 (LAPORU KULTURA)
Teléfono: 94 493 40 17

ANTZERKIA

PREMIEREN VAN JOUWEN

"ELLDOT. EL GLADIADOR DEL HUMOR"

Producción de la Fundación
El Guggenheim Bilbao y el Guggenheim Museum Bilbao

El Guggenheim Bilbao



CONTEMPORARY CULTURE STRA
LAPORU KULTURA, 1 (LAPORU KULTURA)
Teléfono: 94 493 40 17


"Elldot"

Producción de la Fundación
El Guggenheim Bilbao y el Guggenheim Museum Bilbao

El Guggenheim Bilbao



CONTEMPORARY CULTURE STRA
LAPORU KULTURA, 1 (LAPORU KULTURA)
Teléfono: 94 493 40 17





CONTEMPORARY CULTURE STRA
LAPORU KULTURA, 1 (LAPORU KULTURA)
Teléfono: 94 493 40 17



t/a: Sabin Arana, historiazalea

1559. urtean Foru Aldundiko zeregine-tan omen zebilen. Agiri batean agertzen denez, Gernikako Batzarrek isuna jarri zioten, Korrejidore eta Bere Maiestatearen Kontseilu Goreneko gastuak handiegiak zirelako. Beste batzuen artean, Thomas hartu zuten erantzuleztat eta hortik ondoriozta daiteke horien gastuen arduraduna zela.

1567. urtean Thomas eta beste batzuek fidantza eman zuten, Juan Alonso Muxika eta Butroitarrak Barraondo jaunarekin zuen zorra kitatzeko. Fidantzatatzat 313 kintal burdin sotila eskaini zuten, eta horrek argi eta garbi adierazi nahi du garai hartan burdinaren negozioan jarraitzen zuela.

Foru Aldundiak 1569. urtean egindako batzar batean aipatu zuten Thomas Goikoleatarrak eta bere kideak zor bat ordaindu gabe zutela (Sagarminagak ez zuen aipatu zein zen zorra), eta sindikoari (diruzaina) agindu zioten hura kobra ziezaiela.

Muskizeko mena Jaurerriko lurraldeko burdinoletan baino ez zen erabiltzen hasiera batean. Hala ere, Gipuzkoara hasi zen eramaten eta ez zegoen mineral guztia bertara ailegatzen zen ziurtasunik. 1574. urtean Hiri eta Lur zabaleko Batzarra Bermeon egin zen eta Thomas Goikoleatarra aukeratu zuten lurraldetik kanpo ateratzen zen mena kontrolatzeko.

Francisco Sarmiento Astorgako apezpikuak Bizkaiko Epaile Aretoa Gaztelako erakunde arruntean sartu nahi izan zuen 1575. urtean eta, horretarako, eskaera zuzendu zion erregeari. Batzar Nagusiek Thomas Goikoleatar eskribau zintzo eta trebea hautatu zuten proposamenaren kontra egin zezan. Soldatatatzat 40.000 marrai ordainduko zioten urteko.

Ezaguna, Bizkaian

Arestian esan dugun legez, Thomasek Portugalete, Galindo eta Muskizko portue-

Thomas Goikoleatar

Larrabetzuar hau 1545. urteko agirietan azaltzen zaigu lehenengoz. Goikolea Dorreko senidea zen, gerora Zubieta auzoko jauregia eraiki zuena. Eskribaua zen ofizioz; eta gaztetatik, burdinolako negozioetan ibilia.



Thomas Goikoleatarrak egindako jauregia ei da, XX. mendearen erdialderantz berreraiki zutena. Besteak beste, Goikolea, Zandoika eta Uribarri abizenetakoak izan ziren horren ugazabak. Etxean zurezko armarría egon zen, baina bertan Zandoika eta Kintanaren leinuko ikurrak agertzen ziren gehienbat. Historiagile batzuek etxea Zubieta leinukoa zela esaten dute. Baina erratuta daude, XVI. mendeko agirietan ikus daitekeenez etxea Goikoleatarrek egindakoa delako.

ZAMUDIO MOTOR

94 400 1016
94 400 1014

Aut. Tardagall
Aut. L. Elvira I
NITRO DUNLOP
EQUIPO

MARMOLANITZA
GOYO

Establezim. Red. 1918 en
1919 en
1919 en



GUCCAN

servicio de limpieza y
mantenimiento de
espacios interiores y exteriores

ZAMUDIO MOTOR

94 400 1016

Thomas nahiko zaharra zela eraman zuten espetxera, Larrabetzun egin zen auzi batean azaldu zuen jarreragatik. Bere biloba Thomas Gerra eta Goikooleatarra izan zen eta hau ere eskribau ospetsua izan zen Larrabetzun.




GARAIOLTZA, S.A.
 PROMOTIOIAK ERAIKUNTZAK

Erakundeak
 Merkataritza-Industria
 Garajolak
 Informazioak eta abarrik
 Edukiak: Hainbat
 Gidatzeak eta abarrik

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza, S.A. (C/ Bazarri
 1.º eta 2.º floor)



Teknologia berriek gizartearen ohiturak aldarazten dituzte. Gaur egun, normalean da gizakion arteko harremanak Interneten bidez lantzea. Horregatik, gero eta garrantzi handiagoa hartzen doaz gizarte-sareak. Nork bere kontuak hedatzeko grina eta interaktibitatea dira sare horien gakoak. Gizarte-sare horietako bat Twitter da. Microblogging tresna horrek testu soileko mezuak bidaltzeko aukera ematen du. Mezuak laburrak izan behar dira eta guztira, 140 karaktere baino ezin da idatzi. Testuak SMS, bat-bateko mezularitza, Twitterren webgune edo Twitterrific bezalako aplikazioen bidez bidaltzen dira.

Zenbait erabilera eman ahal diogu Twitterri: albisteak irakurtzeko, lana topatzeko edo eskaintzak bilatzeko, banaka batzuk esatearren. Baina batez ere une-unekeo pentsamenduak edo sententzioak adierazteko erabiltzen dute Twitterren zaleek. Txat erraldoia bezalakoa da Twitter, baina hainbat abantaila dakartza: erabiltzaileak nahi duenean sarera sartu eta mezuei erantzun ahal die, doaneko mezuak jasotzeko aukera dago sakelako telefonoan....

Twitterren erabiltzaileen %11 nerabeak badira ere, gehienak nagusiak dira. Izan ere, hasiera batean, batez ere helduak ibiltzen diren atarietan (negozio mailakoak, besteak beste) zabaldu zen zerbitzua. Dena dela, gaur egun hazkunde itzela izan du Twitterrek hainbat lagun famatuk berarekin

Sakelako blogak



bat egin dutelako. Horien artean Shaquille O'Neal saskibaloi jokalaria, Britney Spears kantaria edo Ashton Kutcher aktorea dira aipatzekoak. Twitterren erabiltzaile ospetsuei "twitterati" esaten zaie.

Batzuek zalantzan jartzen dute Twitterra baliogarria den ala ez. Hala ere, zerbitzuak gero eta jarraitzaile gehiago du eta microblogging arloan erabilgarrienetarikoa da. Zenbait erabiltzailek erakunde txiki batzuk sortu dituzte Twitterren inguruan. Adibidez, Valentzian Horchata and Twitts izeneko ekimena antolatzen dute urrian. Buenos Airesen, Guadalajara edo Cordoban ere biltzen dira Twitterren zaleak. Elkar ezagutu, iritziak elkartrukatu eta zerbitzuaren beraren erabilera zabaldu egiten dute jarraitzaileek bileretan. Barzelonan Cava&Twitts ekimena egiten dute, eta azken bilerara 200 lagun hurbildu ziren.

Ekintzaileen proiektua

Twitter proiektua Estatu Batuetako enpresa ekintzaile batek jarri zuen martxan 2006ko martxoan, Kalifornian. Hasiera batean, enpresako langileek besterik ez zuten erabiltzen, baina urrirako merkaturatu egin zen. 2008an 18 lagunek egiten zuten lan enpresan, baina gaur egun 40 baino gehiago dira. Eta langile-kopurua etengabe hazten doa. Jack Dorsey da enpresaren burua gaur egun.

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Arazorik gabeko irteerak

Irteerak irteerak

Plazak

Arazorik gabeko...



902 54 08 54

www.arlan.net

gizaldg
Kafetegia

Jantzerak, 1
(Jantzerak, 1)

0100 000000
0100 000000

desire

Desire is a...
Desire is a...
Desire is a...
Desire is a...
Desire is a...
Desire is a...

aldeko

aldeko...
aldeko...
aldeko...
aldeko...
aldeko...
aldeko...

Akeita, txolea eta txokorra

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Zipiri!
–Halan ekarri Luki!
–Atara eidak akeita bero-beroa.
–Zuri be, Txori, akeita?
–Niri kafea Zipiri, ze kafea berbea Etio-
piako Kaffa lurraldetik ei dator.
–Ba, akeita berbea politagoa da Txori.
–Bai Luki? Euskaltzaindiak holan da-
kar: **AKEITA** g. g. er. “kafea”, erakusteko hitz

hori gitxi erabilia dala.

–Ba, nik akeita berbea gurago dot
kafea baino.

–Eta gero kafeina terminoa, kimikakoa
zelan esan, Luki?

–Kimikarako kafeina da berba egokia,
baina tabernara sartuta honi Zipiriri beti
eskatzen deusat: Niri betikoa: *akeita, txo-
lea eta txokorra!*

–Tabernako zerbitzaria erdalduna
bada, ulertuko deus Luki?

–Ez deustie ulertzen kafe bi eskatuta
bere.

–Zelan ez?

–Ez, Txori, kafe bi eskatu eta kamare-
ruak: “No entiendo”.

–Ez daki, Luki, **kontetan** be hala?

–Ez, antza. Eta 10eraino kontatzen ez
dakiena ez da euskalduna, bakoa da.

–Zer da bakoa Luki, baskoa esan gura-
ko dozu?

–Ez, baskoa ez, bakoa; buru bakoa,
bururik ez daukana, burumotza; hori da
bakoa. Ez da berba dotorea ala?

–Bai, bada Luki, dotorea da. **Halanda**
guzti, lehengora joanda, ez da egokia ber-
bak asmatzen hastea –txolea eta txokorra
lakoak- ze, Azkue jakintsuak hiztegiko
sarreran dakarrenez, behin Tiberio enpera-
doreak oker bat egin eban latinez, eta Mar-
celo gortesauak txarto egoala esan
eutsan; Capitok, oster, ondo egoala ze,
txarto esana bazan be, enperadoreak esa-
tea nahiko zala ondo egoteko. Orduan,
Marcelok erantzun eutsan: Zuk Zesar,
emon **zeinskio** hiritartasuna pertsona
bati, baina ez berba bati.

–Nik ez dot enperadore izan nahi Txori.
Ni pozik zeugaz **hamen** Zipiriren kafete-
gian egunero akeita hartu ezker.

–Agur! Zipiri, bihar be niri kafea atara
eta Lukiri akeita.

–Bai, Txori, **zueri** edozer, zuek etxeko-
ak zarie!



EL MUNICIPIO DE
www.aikora.com


Paquete especial GOLF GASTRONOMICO
El paquete incluye: 1 noche en el hotel, desayuno en el restaurante,
espectáculo y un green fee para campo de golf.



T. 94 454 3574
www.aikora.com

45€

por persona - IVA incluido



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Nork irabazi du
“Mikel Zarate”
Literatura Saria?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:

Sondika-Goiri argazki taldea

Irabazlea:

Amaia Pardo


Bakoren bazterra

Kafe goxoa bereizten ikasteko...

Iñaki Suárez, sumillerra

Tabernetan, kafetegietan, jatetxee-tan... entzuten diren gure esaldien artean hau da ohikoenetarikoa bat: "Zein ondo, edo zein txarto, prestatzen duten kafea hemen!". Kafea oso produktu delikatu da eta berarengan eragina dute tenperaturak, hezetasunak, ehotzeak (meheagoa edo lodiagoa bada), hura prestatzeko erabiltzen den makina motak, tokiko urak eta, noski, kafea prestatzen duenaren eskuak. Faktore horiek oinarritzat hartzen baditugu, zeri erreparatu behar diogu zerbitzatu diguten kafearen kalitatea aztertzeko? Lehenengo eta behin baloratu beharko genuke kafe hori ordainduko dugun, ala gonbidatuko gaituzten. Ez, txantxa da. Orain benetan arituko naiz. Nire ustez, badaude bost faktore erabakigarriak direnak kafea dastatu eta horren kalitatea ona ala txarra den aztertzeko:

-Krema: kikararen azal osoa gaineztzen duen estalki trinkoa da. Burbuila txi-



kiek osatzen dute eta, desegin baino lehen, minutu batzuetan irauten du. Normalean, hurriz kolorea hartzen du eta tigre-larruaren antzeko tanto ilunagoak ditu.

-Usaina: koilaraz krema apurtu eta sakonki arnasten dugunean nabaritzen dugu. Kafe motaren arabera, aromak ezberdinak izango dira. Barietate nagusia arabikoa bada, aromak finak izango dira, fruta-gustukoak eta belarkarak; baina barietate nagusia sendoa bada, aromak hurbilago egongo dira egurretik, zereale-tatik edo ogi xigortutik.


-Zaporea: Ahoan, ardoak bezala, kafeak aho-barrunbe osotik egingo du ibilaldia, eta sentsazio goxoak, gaziak, garratzak edo mingotsak utziko dizkigu.

-Gorputza: kafeak mihian eta ahosabaian uzten duen lodiera- edo dentsitate-sentsazioan islatzen da. Elementu horrek ateratze zuzena edo ez zuzena azalduko digu, arintasuna eta kafeak duen kontzentrazioa.

-Zapore ondokoa: edan ostean kafeak uzten digun sentsazioa da. Kafea kalitatezkoa bada eta zuzen atera badute, sentsazio atsegina utziko digu. Baina horrela ez bada, mingostasun-sentsazio desatsegina utziko digu, edo erre-zaporea.

On egin.

Etxeko sukaldaritza




Arroz-tartea

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak:**

- 8 arrautza
- 250 g gurin
- 8 koilarakada azukre
- 8 koilarakada gari urun
- 600 cl esne


Prestateko erea:

Gurinez igurtziko dogu tartea egiteko erabiliko dogun moldea. Zurin goak edur-puntuan ipiniko doguz irabiagailuagaz. Beste ontzi baten osagaiak botako doguz ordena honetan: gorringoak, azukrea, gari uruna, gurina, zuringoak (edur-puntuan) eta esnea. Osagaiak nahastau eta oreka botako dogu gurinez igurtzitako moldera. Moldea laban sartuko dogu (aurretik 200 gradutan izango dogu berotzen), eta handik hiru ordu laurenera eginda egongo da tartea.



Ercoreca
supermerkatuak

Flikadura adituak



			6	7	5	8		9
	1					6	7	
	8							
4					1			
				4				
		7			9	2		6
			1		4			
				8			2	
		8	5	6				

[illegible]

J. KLONKALAGA
Klasik International, Inc. (USA)
Klasik International, Inc.
10000 1st Avenue, Suite 200
Dallas, TX 75243, USA
Tel: (214) 343-1111
Fax: (214) 343-1112



Polysilica Estética
04 455 81 44



Wij zijn de grootste leverancier van
verpakkingen voor de bouwmarkt

020 730 7444 **84 407 00 00**

Antzerkia eta filmak

Derio

- > Dosperillas eta Pequeño payaso artisten emanaldia. Maiatzaren 9an, 12:30etan, kanpoko frontoian.
- > *Extranjeras* filma. Maiatzaren 26an, 20:00etan, Gurea Aretoan.

Erakusketak

Derio

- > Sutondoan elkarteak antzezlanetan erabili duen arropa. Maiatzaren 9an, 19:00etan, kiroldegian.
- Ibilgailu klasikoak. Maiatzaren 23an, 16:30etik 19:30era arte, Uribe parkean.

Hitzaldiak

Derio

- > "Derio kultura arteko gizartearantz", Martha Lucia Ahislamako elkartearen buruarekin. Maiatzaren 25ean, 20:00etan, Gurea Aretoan.

Zamudio

- > "AHTren aurkako borroka: beharrezko gogoetarako aukera", Iñaki Antigüedaren eskutik. Maiatzaren 25ean, 18:00etan, Susterrak tabernan.

Larrabetzu

- > "Hirigintza eta generoa", Oihane Ruiz eta Amaia Albeniz arkitektoen eskutik. Maiatzaren 13an, 19:30ean, Anguleri kultura etxean.

Ikastaroak

Lezama



- > Lehen sorospena. Maiatzaren 15ean eta 16an, 09:00etatik 14:30era arte, Uribarri topalekuan.

Irteerak

Sondika

- > Tipi-Tapa osasunez. Maiatzaren 9an, 10:00etan, tren-geltokian. Izena ematea: maiatzaren 6ra arte, liburutegian.

Zamudio

- > Bizkargi: maiatzaren 16an, eta Ezcaray: maiatzaren 14tik 16ra bitartean. Arro eta taldeak antolatua.

Lezama

- > Kodes, maiatzaren 16an; eta Pagoeta: maiatzaren 30ean. Gailur taldeak antolatua.
- > Nerbioiaren iturburua, maiatzaren 30ean, Zorribike taldeak antolatua.

Jaiak

Txorierri

- > San Isidro, Txorierriko nekazarien kooperatibetan. Maiatzaren 15ean.

Larrabetzu

- > San Isidro, maiatzaren 15ean. Euskal produktuen azoka, bazkaria eta berberna. Izena ematea: maiatzaren 12ra arte, udaletxean.

Kirola

Sondika

- > "Sondikako Udala" Areto-futbol Txapelketaren finalaurrekoak. Maiatzaren 9an, Goronda Beko kiroldegian. Finalak, maiatzaren 23an.
- > Fitness Txapelketa. Maiatzaren 29an, 18:30ean, Goronda Beko kiroldegian.

Derio

- > Derioko I. Koparen finalaurrekoak (pilota partidak). Maiatzaren 7an, 17:00etan, frontoian.
- > Hiruko areto-futbola (gizonezkoa). Maiatzaren 20an, 19:00etan, kiroldegian.
- > Two ball. Maiatzaren 21ean, 18:00etan, kiroldegian.
- > Gimnasia erritmikoaren erakustaldia.

Maiatzaren 22an, 19:00etan, kiroldegian.

- > XXIV. Ibilaldi neurtua. Martxoaren 23an, 08:00etan, Herriko plazan.
- > Slaloma. Maiatzaren 23an, 11:00etan, futbol-zelaian.
- > Eskupilota. Maiatzaren 28an, 17:00etan, frontoian.
- > "Sabin Zubieta" Memoriala. Maiatzaren 29an, 10:00etan, kiroldegian eta Ibaiondo futbol-zelaian.
- > Xake Nazioarteko Opena. Maiatzaren 30ean, 10:00etan, kiroldegian.

Zamudio

- > Plater-tiroko saioa. Maiatzaren 15ean, 10:00etan, Teknologia Parkean.

Musika

Derio

- > Orontes Project. Maiatzaren 28an, 20:30ean, Gurea Aretoan.

Bestelakoak

Sondika

- > Argazki Rallyaren sari-ematea. Maiatzaren 23an, 11:30ean, Kultura Etxean.

Loiu



- > Joko anitzeko kirol pistaren inaugurazioa. Maiatzaren 14an, 19:30ean, Santa Luzia bidean.
- > VI. Nagusien jaiak. Maiatzaren 29an, 11:00etan.

Derio

- > Briska Txapelketa. Maiatzaren 3tik 5era bitartean, 17:00etan, Larrabarri base-rrian.
- > Tiragoma Txapelketa. Maiatzaren 23an, 11:00etan, herriko plazan.
- > Dantzaldia. Maiatzaren 30ean, 18:00etan, kiroldegian.

Zamudio

- > Bizkaia21 autobusa. Maiatzaren 1ean eta 2an, 10:00etatik 15:00etara arte, Sabino Arana plazan.



**Qure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atxiegia handia egiten dugu. Berkeba alorretan hegazkin-motor
magetromaguetan, turbinetako eta CO₂ garraiagarriarenak dituztenak, eta
16.000 pertsona baino gehiago dituen enpresa bat gaitu. Gure enpresa
hazterako talde-lana egiten du. ITP Inmagrillo, Inguanien, Alavako, Nafarroa
Integritas (xehi duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa) parte
hartzaren bidez, eragileak dituzten enpresak, beraz, bostak gaitu gaituz
hazterako talde-lana egiten du.





SHIADE

muebles con estilo

24 hilabete

interes eta gastu barik

Eta maleta-sorta
eraman, doan

Disainurik onena, prezio Light-etan

%40ko
Beherapena
Pikolin koltxoietan
www.shiade.com

Loiu

Txorierri etorbidea, 25
Tel. 94 453 12 90

Barakaldo
Kareaga, 109 -pab.15
Tel. 94 404 41 41

Galdakao
Labeaga, 1
Tel. 94 457 19 90